

22. zenbakia / 2011ko ekaina

Leizako
aldizkaria


Marmari

- Leizako auzoen eta kaleen izenak
- Moarratzea
- Hakabeltza Elkarte
- Euskararen inguruko topikoak
- Hileta zibilak
- eta gehiago...

Marmari, herriaz kontu kontari



zenbaki honetan:



Marmari, herriaz kontu kontari

Uda hasi berria dugu, eta garai honetan iristen da urtero MARMARI aldizkaria zure eskuetara. 22. zenbakia duzu oraingoa, aurreko guztien ildo beretik osatua.

Zenbaki honetan tankera ezberdineko gaiak hautatu ditugu, ohi bezala. Hizkuntzari eta euskarari lotutakoak dituzu, alde batetik: animalien lengoaiar aritu gara artikulatu batean, esate baterako, eta euskararen inguruko topiko batzuei astindutxo bat eman nahi izan diegu beste lan batean. Euskara benetan hizkuntza txikia, zaharra, zaila eta berezia ote den aztertu nahi izan dugu, hain zuzen ere.

Euskararekin lotutako beste lantxo batek euskara zerbitzuaren logo berria aurkeztu digu. Logoa bera zein den, eta nola osatu den. Eta azkenik, Leitzako kaleen eta auzoen izendapen ofiziala zein den azalduko dugu, aurreko Leitzako Udalak hartutako erabakien eta erabaki hori hartzeko arrazoien berri emanda.


Bestelako gaiak ere aurkituko dituzu aldizkarian, Leitzako bizitzarekin lotutakoak: Kaxkabeltza elkarteari egindako elkarrizketa, adibidez. Herriko komertzioen ikuspegia jaso nahi izan dugu, zer esana badutela iruditzen zaigulako. Horretaz gain, hileta zibilak ere aipagai izan ditugu, Udalak horren inguruan onartutako ordenantzan oinarrituta.

Eta horiez gain, beste bi gai ere landu ditugu: alde batetik, Leitzako aspaldiko usadioa izan den moarratzeaz idatzi dugu, azken aldirian horren inguruko interesa eta mugimendua somatu baita gure herrian. Bestetik, konpostaz aritu gara, gure etxeetan gero eta gehiago ikusten ari baita teknika hori erabiltzeko asmoa eta ahalegina.

Eta, jakina, gure ohiko ataletako batzuk ere hortxe dituzu: Leitzako argazkiak, eta azken orrialdeko inkestaxoan jasotako Leitzar batzuen ideiak, usteak edo gogoetatxoak.

Gustuko platera izanen duzulakoan, eskerrik asko zure arretagatik.





Leitzako kaleen eta auzoen izenak



Leitzako kaleen izenaz hitz egiten hasi orduko, normalean sortzen den lehendabiziko aipamena anabasarena izaten da. Zaila da oso zenbait kale non hasten den eta non bukatzen den asmatzea. Aztertu beharreko konputua da hori, eta agian konpondu beharrekoa, baina oraingoan ez gara horre-

taz ariko. Artikulu honen gaia Leitzako kaleen eta auzoen izena da. Alegia, nola deitzen diegun gu denak bizi eta ibiltzen garen kale eta auzo horiei.

Anabasa aipatu dugu arestitxoan, kaleen antolaketaz ari ginela, nahikoa kaotikoa delako hain zuzen ere. Bada, zenbait kaleren izenarekin ere antzera gertatzen dela ematen du, eta auzi hori pixka bat ordenatzeko eta ofizializatzeko asmoz, Leitzako Euskara Zerbitzuak proposamen zehatz bat egin zion Euskara Batzordeari, eta bertan aztertu ondoren, proposamen hori Udalari egin zitzaion. Baita Udalak onartu ere.

Horren ondorioz, 2011ko apirilaren 27an egindako batzarrean, Leitzako Udalak herriko kale eta auzoen izen ofizialak onartu zituen.

Jarraian, Euskara Batzordeak osatutako txostena baliatuta, proposamen eta erabaki horren berri zehatz emanen dizuegu.

EUSKARA BATZORDEAREN PROPOSAMENA

Euskara Batzordearen proposamenaren abiapuntua hauxe izan da: zenbait alderditik begiratuta, herri bateko kaleen eta auzoen izenak zuzen eta egoki erabiltzea interesgarria izan liteke, eta baita beharrezkoa ere. Herriko toponimia zaintzeko eta normalizatzeko era bat da; nahasteak gertatzea eragotzi dezake; herriaren eta udalaren irudia hobetu dezake...

Baina bistakoa da Leitzako kaleen eta auzoen izenen erabilera nahikoa nahasia dela, eta hainbat kasutan okerra. Alde batetik, hainbat herritarrek eta erakundek gaztelania hutsezko izena erabiltzen dute sarritan, baita euskara hutsez ari direnean ere. *Obispo Huarte*, esate baterako. Beste askotan, berriz, euskarazkoa erabilia ere, zalantza handiak sortzen dira nola idatzi behar den erabakitzeke garaian. Zalantzarik ohi-koenak, ziur asko, hauek dira:

- San Miguel kalea, edo Mikel Deuna kalea, edo Done Mikel kalea.
- Huarte Gotzaina, Uharte Gotzaina, Huarte Gotzaia, Uharte Gotzaia.
- Landabekoa, Landa behikoa, Landa behekoa, Beheko Landa...
- Leitzelarrea, Leitzalarrea

Leitzako kale eta auzoen izenak orain arte era honetan agertzen ziren udaleko erregistroan:

- Amazabal kalea
- Arkiskil auzoa
- Azku kalea
- Elbarren kalea
- Elgoyen kalea
- Erasote auzoa
- Erreka auzoa
- Gorritzaran auzoa
- Landabekoa kalea
- Leitzelarreko errepidea
- Lizarraga kalea
- Manuel Lasarte kalea
- Obispo Huarte kalea
- Okillin kalea
- Patxi Arrazola kalea
- Sakulu auzoa
- San Jose kalea
- San Miguel kalea

Horiek ziren, horrenbestez, herriko kale eta auzoen izen ofizialak. Eta horixe zen, hain zuzen ere, Euskara Batzordearen ustez egokitu eta zuzendu behar zena.

Euskara Batzordearen ustez, ikusita herriko kaleen eta auzoen izenek zalan-tza asko eta erabilera oker dezente sortzen zituztela, komenigarria zen Udalak berak izen horien forma zuzena eta egokia finkatzea, ofizial bihurtzea, eta ondoren herritar eta erakunde guztiei jakinaraztea, toponimo horien erabilera normalizatzeko.

Euskara Batzordearen proposamenan, nolana ere, ñabardura bat ere egin zen. Honakoa, hitzez hitz:

“Ulertu behar da, nolahi ere, herriko kale eta auzoen izen ofiziala onartzeak duen eragina norainokoa den. Udalak forma horiek erabili beharko lituzke, eta logikoena litzateke herriko erakunde eta taldeek ere hala egitea, baita herritarrek ere ziur asko. Baina ezin da inor horretara behartu, eta inork forma jakin batekikiko atxikimendu berezirik izanen balu, ezinen litzaioke galarazi hala erabiltzea. Erabilera jakin bat ofizializatuko da, beraz, baina herritarren erabilera pribatuari dagokionez gomendio bat izanen da, pentsa litekeen moduan.”

Herritarrentzat gomendioa da, beraz, baina horrek ez dio baliorik kentzen proposamenari eta, jakina, proposamena da denok forma horiek modu berean erabiltzea.

Udalak, esan bazala, Euskara Batzordearen proposamen zehatza onartu zuen eta, horrenbestez, Leitzako auzo eta kaleen izen ofizialak, gaur egun, honakoak dira:

- Arkiskil auzoa
- Erasote auzoa
- Erreka auzoa
- Gorritzaran auzoa
- Sakulu auzoa
- Amazabal kalea
- Azku kalea
- Elbarren kalea
- Elgoien kalea
- Lizarraga kalea
- Manuel Lasarte kalea
- Okillin kalea
- Patxi Arrazola kalea
- San Jose kalea
- Done Mikel kalea
- Leitzalarreko errepeidea
- Landa behekoa kalea
- Uharte Gotzaina kalea

IRIZPIDEAK

Izen horietako asko lehendik ere horrelaxe erabiltzen ziren, eta ez zuten zalantza handirik sortzen. Ziur asko azke-



neko bost izenak dira zalantza eta erabilera oker gehien sortu dutenak, eta horregatik proposamenean bertan azaldu zen zergatik proposatzen zen modu zehatz horretan idaztea. Hauek dira Euskara Batzordeak erabili eta azaldu zituen irizpideak, horiek ere hitzez hitz:

SAN JOSE ETA DONE MIKEL

Euskaltzaindiaren arauak eta gomendioak izan ditugu kontuan. Hain zuzen ere, 125. araua. Bertan esaten denez, euskara baturako San / Santa erabiltzen da normalean, baina badira bestelako tradizioa duten izenak, Dona eta Done erabiltzen dutenak. Jose izenaren kasuan ez dago gisako tradizioirik, eta, beraz, San Jose behar luke. Done Mikel izenak, berriz, badu tradizio hori, eta egokia izan da hala erabiltzea. Euskaltzaindiaren arauak, hitzez hitz, honela dio guri interesatzen zaigun pasarteetan:

“Euskaltzaindiaren 125. araua, San, santu, done eta besteren erabilera.

1. Euskara batuan San / Santa erabiltzen dira eskuarki santu izenekin: Santa Elisabet, Santa Katalina, San Simon, San Frantzisko... Hau da, beraz, gomendio nagusia.

2. Done / Dona ere erabil daitezke, bereziki gure onomastika tradizioan aurkitzen diren honako hauekin, hots:

- Dona: Alodia, Garazi, Julia, Maria, Mariana, Pia.

- Done: Agustin, Bartolome, Bikendi, Bladi, Emiliano / Millan, Erroman, Eztebe, Felix, Jakue, Joane, Julio, Jurgi, Justi, Kosme, Kristobal, Laurendi, Leon, Martie, Martzelo, Mateo, Meteri, Mikel, Paulo, Pelaio, Petri, Salvatore, Saturdi, Sebastian, Tomas, Zipriano”

LEITZALARREKO ERREPIDEA

Leitzalarrea eta Leitzelarrea, biak ere oso erabiliak dira Leitzan. Jakina da ahozko hizkeran Leitze dela bertan formarik erabiliena. Idatzirako, ordea, Leitzarrea erabiltzen da. Zentzuzkoa dirudi Leitzarrea erabiltzeko irizpide horri eustea eta koherentziaz jokatzeko forma hori agertzen den gainerako kasuetan, Leitzalarrea izenean esate baterako. Ondorioz, gure ustez Leitzalarrea erabili beharko litzateke.

LANDA BEHEKOA

Euskarazko egitura normalean Beheko landa izanen litzateke, baina jasota

daukagun forma zaharrenak bestelako itxura bat dauka. Leitzako toponimia biltzen duen liburuan (*Leitza. Toponimia eta mapagintza*. Nafarroako Gobernuak argitaratua), honela jasotzen da, hitzez hitz:

“Landebekoa

DOC.- *landaveicoa* (1776, GRAV. N°13 F.218); *landabecoa* (1899, GRAV.N°13 F.242)

CF.- *Landa azpicoa* (1714, PR.LEI. C22); *landa de abajo* (1756, GRV. N°13)

PRON. POP.- *landabeikóa* (1990, OR-E)

UB. CART.- 08957A4

COD. GEOG.- 50501”


Tradizioak, beraz, *Landa* aurretik eta behekoa atzetik jartzen dituen forma erakusten digu, eta horixe da gaur egun ere herriterrek erabiltzen dutena. Horri eustea proposatzen dugu, beraz, “beikoa” eta “bekoa” aldaeren artean bigarrena hautatuz, eta grafia normalizatua erabiliz. Landa behekoa da, horrenbestez, gure proposamena.

UHARTE GOTZAINA

Kasu honetan Huarte abizenaren euskarazko forma normalizatua erabiltzea proposatzen dugu; Uharte, alegia. Horrekin batera, gotzain hitzak Euskaltzaindiaren hiztegi batuan hartzen duen forma erabiltzea. Ondorioz, Uharte Gotzaina forma erabiltzea proposatzen dugu.

ERABILERA

Horiek, beraz, Euskara Batzordeak eman zituen arrazoiak. Leitzako Udalak ontzat jo zituen, eta orain badugu herriko kale eta auzoen izendapen ofiziala. Interesgarria litzateke denok bide beretsutik jotzea eta izenak modu horretan erabiltzea. Baita herrikoak ez diren erabiltzaileei jakinaraztea ere —pribatuak nahiz publikoak— haiek ere gure izenak errespetatu eta erabil ditzaten.



KONPOSTA

Aspaldiko teknika berria

Azken urteotan sarritan entzuten ari gara konpost hitza. Besteak beste, Mendialdea Mankomunitatea zaborrak tratatzeko sistema hau bultzatzen ari delako. Baina konposta ez da oraingo asmakizuna, gure aurrekoek ere egiten baitzuten. Esan genezake, akaso, aspaldiko ohitura tresneria eta teknika modernoz berrituta heldu dela.

ZER DA KONPOSTAJEA? ETA ZERTARAKO?

Konpostajea teknika bat da, hondakin organikoak (janaria, belarra, hostoak...) konposta bihurtzeko. Konposta, hain zuzen ere, Mendialdea Mankomunitateak argitaratu duen liburuxkan, hone-la definitzen da:

“Konposta mikroorganismoek (bakterioek, onddoek...) eta beste organismo batzuek (zizareek, kakalardoek...) oxigenoa duen giroan egiten duten usteltze naturalaren ondorioa da.”

Alegia, normalean zakarrontzira bota eta zuzenean zabortegira joaten diren hondakin organiko horiek, aprobeztatu eta ongarrri bihurtzen ditugu konpostajearen bidez. Garrantzitsua da kontua, gogoan izan behar baitugu etxean sortzen dugun zaborraren ia erdia organikoa dela. Zer lortuko dugu, beraz, konpostajearen bidez? Bada, esate baterako:

- Tratatu beharreko gai organikoen kantitatea asko murrizten da.
- Ongarri kimiko gutxiago erabiltzen da eta, ondorioz, ingurumena hobeki zaintzen da.
- Lurzorua konpostarekin ongarrirituz gero, haren egitura mantentzen da eta

mikrobio-flora berreskuratzen laguntzen du.

- Landareei era naturalean hazteko elikagaiak ematen dizkie.
- Konpostari esker lurzorua hezetasuna hobeki gordetzen du, eta ureztatzeko ur gutxiago erabiltzen da.
- Herritarrek ingurumenaren zaintzan zuzenean inplikatzeko dira.

Konpostarako erabiltzen diren hondakinak, normalean, lorategiko hondarrak eta elikagaien hondarrak izaten dira. Horiek konpostarako erabiliz gero, hondakin organikoen zikloa etxean bertan ixten dugu.

MENDIALDEKO MANKOMUNITATEAREN APUSTUA

Mendialdeko Mankomunitatean gure eskualdeko 6 udal elkarten dira. Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Larraun eta Lekunberri. Mankomunitateak hasieratik izan du garbi konposta egiteko ohitura indartzen saiatu behar zuela, hondakinen kopurua murrizten jarraitzeko eta hondakin organikoak irtenbide egoki bat emateko. Eta horretarako, besteak beste, auto-konpostajea bultzatzen ari da. Alegia, nork bere etxean egin dezala konposta. Sortzen dugun konpostarekin, gainera, gure lurra (baratzak, belar soroak...) ongarritze-ko aukera sortzen da.

2010. urtean hasi zen Mankomunitatea herritarren artean konpostagailuak banatzen. 2011. urtearen hasieran 57 familia ziren eskualdean konposta egiten zutenak, eta gaur egun beste 107 dira eskaera egin dutenak. Mendialdea Mankomunitateak 107 horientzat konpostagailuak lortu ditu Nafarroako Hondakinen Partzuergotik.

Konpostagailua uzteaz gainera, etxean konposta egin behar duten herritarrei Mankomunitateak hitzaldiak eta ikastaroak eskaintzen dizkie, konpostaren inguruan treba daitezen.

KONPOSTAJEA

Aurreraxeago esan dugun moduan, konpostajea teknika bat da. Eta teknika horrek, jakina, tresneria bat behar du. Ezinbesteko tresnak bi dira: konpostagailua bera, konposta biltzeko ontzia azken batean, eta irauli-tresna bat. Iraultzeko tresna horrekin hondarrak haizatu, nahasi eta laginak hartzen ditugu. Mankomunitateak banatzen ditu bi horiek.

Horietaz gain, badaude beste tresna batzuk, aukerakoak: hondakin organikoak biltzeko ontzi txikia, konposta garraiatzeko eskorga, lorezaintzako guraizeak, eskularruak...

Batek baino gehiagok pentsatuko du konposta betidanik egin dela eta ez dela horretarako tramankulu berezirik behar. Eta agian arrazoia izanen du, egia baita konposta egitea ez dela gauza berria. Baina orain banatzen ari diren konpostagailuak horretarako daude propio diseinatuta, eta ziur asko emaitza eta errendimendua hobekia dira, zenbait arrazoirengatik:

- Ingurune-baldintzen kontrola: besteak beste, hezetasuna eta tenperatura.
- Mantentze-lan gutxi. Konpostagailua kanpoan egoteko tratatutako plastiko birziklatuaz egina da.
- Ura aurrezten da.
- Ez du usain txarrik sortzen.
- Muntatzeko erraza da.
- Ez du leku handirik behar.
- Konposta 5-6 hilabetetan egina dago.



Konpostarako, esan dugun moduan, hondakin organikoak erabiltzen ditugu. Mankomunitateak argitaratutako gidan honela azaltzen da konpostatu daitekeena:

Zer konpostatu daiteke?

ETXEA

- Fruta eta barazki hondarrak
- Pasta eta arroz egosia
- Arrautza oskolak
- Kafe hondarrak, infusio poltsak
- Zerrautsa
- Egur naturalaren errautsak

LORATEGIA ETA BARATZA

- Soropil hondarrak, belarrak, etab.
- Hostoak, loreak eta kimatze-hondar txikiak
- Baratzeke uztaren hondarrak



Hobe saihestea

- Haragi eta arrain hondarrak
- Hezurak, arrain hezurak eta itsaski oskolak
- Koipeak edo legamiak dituzten produktuak
- Esnekiak
- Animalien gorozkiak


Ezin da konpostatu

- Beira, metala, brikak
- Plastikoak
- Pilak
- Bonbillak
- Botikak
- Pinturak
- Gai kimikoak
- Paper eta kartoi tinta koloreduna
- Zur tratatuaren errautsak
- Hauts eta garbiketa hondarrak
- Olioak



* Artikulu honetan erabili ditugun irudiak Mendialdea Mankomunitateak argitaratutako ETXEKO KONPOSTA EGITEKO GIDatik hartu ditugu.

Horiek, bada, konpostajearen inguruko argibide xume batzuk. Inork gaian sakontzeko interesa izanez gero, eta etxean konposta egiteko aukera izanez gero, Mendialdea Mankomunitatera jo dezake informazio gehiago eskuratzeko (948 510444).



MOARRATZEA

aspaldiko teknika
eta ohitura
berreskuratzen

Leitza baso ugari eta aberatseko lurraldea dela esan beharrik ez dago, ingurura begiratzea besterik ez da behar horretaz jabetzeko. Baso eta oihan horien inguruan bizitutako mila gauza kontu liteke: lanbideak, gertakizunak, gerrak, oihiturak, istorioak, istripuak...

Artikulu honetan ere basoari eta oihanari lotutako gai bat jorratuko dugu: moarratzea, hain zuzen ere. Ez da hemengo kontua bakarrik, eta ez da oraingoa, baina azkenaldi honetan nolabaiteko oihartzu-



Argazkia: Miel Mari Elozegi

na lortu du, besteak beste Leitzan egin diren Zuhaitz Zaharren Moarratzaileen I. Nazioarteko Jardunaldiak direla eta.

ZER DA MOARRATZEA?

Hitza ezagutuko duzu akaso, hemen horrela esan baitzaio aspalditik. Mikel Olanoren *Aio*, *Leitze* hiztegian honela ematen da horren berri:

modorratu, moarrotu, moarratu, muarrotu.

“*Modorratu*. Podar árboles. *Lizarrak modorratu ditugu*” (Azp. 63-4). Honela dio Kortabordako Martioxe Oronozek, 1950. urte inguruan botatako gereziondo handiaz: “Gero adarrak iartzen hasi zekion, da baten batek gañetik erorrite lepoa autsi igoal da, moarrotu in giñun” (Arbolak 94).

Berriz ere Kortabordako Martioxe Oronozek esana: “Gerizeondo bate bazun onek, Leitzen zen aundina. Ark izaan zittun ondoan bi kana bai aise! Sekuleko geize pillek ematten zittun. (...). Moarratute yarri giñun, baño azkeneako zartu zen da, akabo!” (PP 96: 418). “Piñu asko ihartu zen orduan izoztuta. Astaitzagan pikoa ihartu zen eta intxaurre ere moarratu behar izandu giñun adarrak ihartu zitzaizkiolako” (Astaitz 04). – *Kimatu, soildu*.

Beste inguru batzuetan, baita hemen ere, beste hitz batzuk erabiltzen dira: *kimatu, inausi, adaondu*.

Moarratzea, azken batean, arbolai adarrak moztea da. Eta zer arbolari mozten zaizkio adarrak? Pagoari eta haritzari, konparaziora, baina baita lizarrari, urkiari, gaztainondoari, sagarrondoari... ere

Oso aspaldiko ohitura dugu, gutxienez erdi arora eta orduko burdinoletara jo beharko baitugu haren jatorria aurkitzeko. Garai hartan hasi zen egur eskaria handitzen Euskal Herrian, erai-kuntzarako, burdingintzarako eta ontzintzarako adibidez, eta moarratzea ere produkzioaren hazkunde horrekin lotuta dago, zuzenean edo zeharka. Ez da oraintzeko kontua, beraz, eta, are gehiago, azken hamarkadetan nahikoa utzia eta baztertua gelditu da.

Moarratzearen jatorrian, batzuen ustez bederen, abeltzainen eta basogintzan ari zirenen arteko liskarrak daude. Izan ere, hasieran arbolak behe samarretik ebakitzen ziren, eta kimu berriak ere, ondorioz, oso behetik hazten ziren. Kimu horiek azienden eskura gelditzen ziren, eta, noski, hara jotzen zuen aziendak. Itxituak egin ziren horri aurre egiteko eta liskarrak ekarri zituen horrek.

Moarratzea, besteak beste, arazo eta liskar horiei aurre egiteko modu bat izan zen. Arbolak behetik ebaki beharrean, goragotik ebakitzen hasi zen, 2-3

metroko altueratik, eta horrela zuhaitz moarrak edo motzak sortu ziren. Kimu berriak altuera horretatik sortzen zirenez, aziendak ez ziren iristen eta arazo horri konponbide bat eman zitzaion.

Oso aspaldikoa izateaz gainera, garai batean toki askotan egiten zen lana da. Leitzara, esate baterako, Erresuma Batuko jendea etorri da azkeneko urteotan horren berri ematera eta hemengoa ezagutzera, baita Katalunia, Frantzia, Espainia eta Italiakoa ere.

Aspaldikoa beraz, baita eremu zabal batekoa ere, baina pentsa litekeen bezala lan hori egiteko modua edo teknika ez da beti berdina izaten. Teknika eta modu ezberdin horiek ezagutzea eta elkarriz azaltzea izan da, besteak beste, Leitzan hain toki ezberdinetako jendea elkartzeko arrazoia.

NOLA EGITEN DEN

Esan bezala, adarrak mozteko teknika horiek, eta baita erabilitako tresnak ere, ezberdinak izan litezke. Hemen aitzoraz egin izan da beti, baina motozerra ere erabil liteke, jakina, eta hala egiten dute Erresuma Batuan horretan aritzen direnek. Gaur egun, nolana ere, Leitzan ere hala egiten da. Lehen aitzoraz egiten zen, motozerrarik ez zegoelako.

Adarrak mozteko garaian ere aukera ezberdinak daude: arbolaren enborrean goragotik edo beheagotik hasita moztu daitezke, esate baterako. Azken urteotan egin dituzten jardunaldietan, izan ere, Leitzan eta Erresuma Batuan ezberdin jokaten zutela ohartu dira. Han, esate baterako, lehen fase batean adar puntak besterik ez dituzte moztzen, motozerraren bitartez. Zuhaitzak gutxiago zigortzeko asmoz, adar txikiak kentzen dizkiete, baina ongi erantzuten badu eta berritzen bada, 5-8-10 urte beranduago itzuliko dira, eta beheagotik moztuko dizkiote adarrak. Moarraketa progresiboa da haiena. Gurea, berriz, kolpe batekoa izaten da, moa-

rraketa bakarra, eta, bestalde, adarrak ipurditik moztzen dira. Helburua ere ezberdina baita: leitzarren helburua arbolatik egurra lortzea izaten zen. Ingelesena, berriz, zuhaitz moarra berreskuratzea. Ingelesek egur gutxi lortzen dute moarraketatik, baina ez die gehiegi axola, helburua ez delako egurra, zuhaitza berreskuratzea baizik. Esan dezagun, bidenabar eta ñabardura txiki bat eginez, Leitzan bertan gaur egun helburua, egurra baino gehiago, teknika berreskuratzea dela.

Moarratze aldien arteko epeak ere laburragoak edo luzeagoak izan litezke.

Moarratzea maiztasun handiagoz egiten dute Erresuma Batuan, arbolak gutxiago sufritzen duela eta lehenago berreskuratzen dela uste dutelako. Euskal Herrian 15-20 urtean behin egiten da, pagoen kasuan. Hala ere, behar zen piezaren arabera, batzuetan 40-50 urte ere egiten zen. Lizarrak, aldiz, urteror. Eta urkiak eta haritzak, hostotarako, bi urtetik behin...

ZERTARAKO

Moarratzeko zenbait arrazoi egon litezke: batzuek arbolaren biziraupenarekin eta osasunarekin dute zerikusia, eta beste batzuek moztutako adarren erabilerarekin.

Lehendabizikoari dagokionez, esan beharra dago moarratzeak arbolaren bizitza luzatzen duela, eta arbolari aurrera egiten laguntzen diola. Zergatik? Adibidez, arbolari gehiegizko karga edo zama saihesten laguntzen diolako. Arbolaren adarren pisua arindu egiten du, bolumena gutxitzen dio eta, hartara, elurteek, ekaitzek edo haizeteek eragin diezaioketen kaltea txikiagoa izanen da. Bide batez, arbolaren biziraupena ziurtatzeaz gainera, mesede egiten zaio bertan bizi diren animaliei eta onddoei. Zuhaitzaren biziraupena luzatzen denez, onddoek, likenek, animaliek... denbora gehiago dute horre-

tara egokitzeko, moarratutako zuhaitzek zaharren itxura hartzen dute, eta zuloak eta gordeleku ugari eskaintzen dituzte mota guztietako bizidunentzat.

Horri dagokionez, nolabait esateko, herri jakinduriak nahiz usadioak eta gaurko ezagutza zientifikoak bat egin dute. Gure aurrekoek egurrari etekina atera nahi zioten, baina arbola bera hil gabe, eta moarratzeak horretan laguntzen zuen. Eta gaur egun biologiak ere erakutsi du horrela lantzen diren zuhaitzek bizitza luzeagoa dutela.

Arbolari moarratzeak ekarriko dion abantaila horretaz gainera, moztutako adarrei eman dakiekeen erabilera ere aipatu dugu. Adar horiekin zenbait gauza egin liteke. Garai batean ikatza egiteko erabiltzen zen batez ere, eta baita itsasontziak egiteko ere, edota goldeak egiteko. Adar punta finenak aziendei bazka emateko erabiltzen ziren, eta, bestalde, sutarako egurretarako ere erabiltzen zen.

Kontuan izan behar dugu, nolana ere, moarratzea berez zuhaitzari kentzea dela: adarrak kentzen zaizkio, eta, nolabait esateko, "gaiztakeria" egiten zaie. Zuhaitzak, ordea, horretara egokitzen dira, eta luzera biziraupen luzeagoa dute. Hori gauzak ongi eginez gero. Okerreko moarraketa batek, ordea, zuhaitza hil egiten du.

JARDUNALDIAK ETA AZKEN URTEOTAKO ELKARLANA

Moarratzea aspaldiko teknika dela esan dugu, baina baita azken hamarkadetan nahikoa galdu dela ere. Horretaz ohartuta, eta teknika hori berreskuratzea eta hobeki ezagutzea merezi duelakoan, gai honen inguruan informazioa biltzen eta besterekin partekatzen duen jendea mugitzen hasi da, batez ere Ingalaterrako Helen Read-ek bultzatuta.

Ez bakarrik hori, lanean ere aritu dira eta, esate baterako, azken 5 urteotan 80 bat pago eta haritz moarratu dituzte Leitzan eta Areson.



Argazkia: Miel Mari Elosegi

Badira propio gai honen inguruan eratutako elkarte eta erakundeak, esate baterako Euskal Herriko *Trepalari* edo Erresuma Batuko *Veteran Trees* elkar-teak. Eta elkarte jakin bateko parte izan gabe, badira gai horrekiko interesa eta ezagutza duten lagunak ere, Leitzan adibidez. Azken urteotako egin diren harremanetan eta topaketatan aritu dira Miel Mari eta Joxemiel Elosegi, Juan Mari Barriola, Gabriel Saralegi, Miguel Barriola...

Horiek denak, beraz, harremanetan jarri dira, eta horren emaitza izan da azkeneko urteotan elkarri egin dizkio-ten bisitak, eta 2011. urtean Leitzan antolatutako nazioarteko jardunaldiak. *Trepalari* Elkar-teak eta Leitzako Udalak antolatu zituzten jardunaldiak, eta otsailaren hasieran egin zituzten. Ezagutza teorikoa landu zuten, baina ez ziren horretan gelditu. Urkizu inguruan 200 urte inguruko hamasei zuhaitzaren adarrak ere moarratu baitzituzten, aspaldian langintza horretan aritua zen Miguel Barriolaren gidaritzapean.

Leitzarrak Erresuma Batura joan dira, hangoak ere hona etorri dira, eta horri esker hainbat gauza ikasi ahal izan dute batzuek eta besteek. Esate baterako, egindako jardunaldietan kan-

potik etorritakoek era seguruan moarratzen erakutsi diote leitzarrei: lotuta, janzkera egokiarekin... Moarratzea, izan ere, arrisku handiko jarduera da. Zaurituak eta hildakoak eragin ditu Leitzan bertan. Gaur egun, lan horiek askoz arrisku gutxiagorekin nola egin ikasten ari dira hemen.

Ikusten denez, Leitzan moarratzea berreskuratzeko ahalegin bat egiten ari da, eta ahalegin horren helburua, ekonomikoa baino gehiago, ekologikoa eta kulturala da: paisaia berezi bat sortzen lagundu du moarratzeko ohiturak, kultura jakin baten isla eta adierazpide, eta hori galtzen ari da. Galera hori eten nahi da, neurri batean bederen, egiten ari den lan guztiarekin.

Eta alderdi kulturalaz gainera, esan bezala, ingurumenerako ere mesede, adarrak sutarako ere erabil baitaitezke, esate baterako. Baina ez bakarrik horregatik: zuhaitz zaharretan gertatzen den usteltze prozesua biodibertsitatearentzat oso onuragarria da. Zuhaitza bera biodibertsitate handiko habitata bihurtzen da. Onddoak eta ornogabeak bizi dira bertan, baina baita hegaztiak ere. Sortzen diren zuloetan animaliek negua edo uda pasatzen dute, muxarrek esaterako, edo baita ehiza egin ere (armiar-

mak). Azkenik, hildako egurra usteldu egiten da eta materia organiko bihurtu, basoa bera elikatuz.

AURRERA BEGIRA

Atzera begira jarrita, ikusi dugu moarraketa aspaldiko ohitura eta teknika dela eta azken aldian utzixea zegoela. Eta aurrera begira jarriz gero? Zer etorkizun ote du moarratzeak?

Zalantzarik gabe, gai honen inguruan lanean aritu direnek izanen dute nola-baiteko itzaropena eta asmoa moarratzeari eusteko. Hala adierazi dute behintzat jardunaldietan eta egin dituzten elkarrizketetan. Etorkizun horri lagunduko dio, ziur asko, teknika hobeki ezagutzeak eta hobetzeak, eta baita horretarako erabiliko diren erreminten eragina jakiteak ere. Ikusi beharko da, adibidez, aizkorarekin edo motozerrarekin ebakitako arbolen erantzuna zein den. Hori guztia, noski, moarratzearen gaineko interesak ezinbestean lagunduta.

Orain hasitako lanak segimendua beharko du, hurrengo urteotan erne ibiltzea eta moarratu diren arbolen bilakaera aztertzea. Hortik ikasi, eta gero eta aukeraketa hobek egin beharko dira. Eskertuko dute arborek, eskertuko du ingurumenak, eta eskertuko du gure kulturak.

Leitza Jon Rodaren begietan

Hementxe duzu, Leitzako iruditan jaso, Jon Rodaren begirada. Kamera bitartetari gisa hartuta, gure argazkiek gure begirada islatzen dute. Milaka irudi eskaintzen dizkigu gure herriak, horietako batzuk hautatu ditu Jonek eta Marmarira ekarri ditugu, Leitzan edo Leitzatik ikus daitekeenaren lagin gisa.



Aralar Maskuribasotik



Urteen joan-etorrian herriari itxura aldatu egin zaio



Arzabaleta



Urepeleko punta



Zuhaitz eroria



Leitza



Dantzariak



Dantzariak



Herriko sarrera ederra

Euskara txikia, zaharra, zaila, berezia eta garbia?

Euskara nolako hizkuntza den gal-detuko balizute, nola erantzunen zenuke? Nolakoa da euskara?

Beharbada ez da bat-batean erantzuteko galdera erraza. Lasai, hartu denbora eta horretan pentsatu.

Artikulu honetan galdera horri erantzuteko askotan erabiltzen diren argudioak aztertuko ditugu. Euskararen inguruan askotan entzun ditugun topiko eta iritzi batzuk ekarriko ditugu eta, aurreratu dezagun, kritikatu edo zalantzan jarriko ditugu.

Zein diren topiko horiek? Bada, honaxekoak: euskara hizkuntza txikia dela, zaharra, zaila, berezia, eta garbia. Baliteke horietako batzuk edo denak zure gustukoak ez izatea, edo baliteke, aitzitik, gustura sentitzea horiek entzundakoan. Ez dizu inork horretarako esku-biderik kenduko.

Guk eginen duguna, besterik gabe, ideia horien irakurketa kritikoa da, gure ustez garrantzitsuak diren ñabardura batzuk eginez. Has gaitezen, bada, euskararen ustezko txikitasunetik abiatuta.

EUSKARA HIZKUNTZA TXIKIA DA

“Hizkuntza txikia” horrekin zer esan nahi dugun argitu beharko genuke deus baino lehen. Hitzun kopuruaz ari baldin bagara, orduan agian bai, agian hitz egin dezakegu hizkuntza txikiez eta handiez. Baina garbi izanda kantitate hutsaz ari garela, hitzunen kopuruaz.

Kontua da askotan beste zerbait ulertzen dela “hizkuntza txikia” esaten denean, eta normalean usain edo konnotazio txarra izaten duela horrek. Ale-

gia, “hizkuntza txikia” entzuten dugunean, askotan bizitasun gutxiko hizkuntza ulertzen da, edo hizkuntza pobrea, edo garatu gabekoa, edo balio gutxikoa, edo...

Eta alde horretatik, gure ustez behintzat, ez dago hizkuntza txirikik eta handirik. Munduan diren hizkuntza natural guztiek balio handia dute, edozein gauza eta behar dugun guztia adierazteko balio dute, konplexutasun ikaragarrikoak eta oso aberatsak dira... Hizkuntzak ezin ditugu, beraz, balio dutenaren arabera hierarkia batean jarri.

Egia da, nolahi ere, txikitasunak ez duela nahitaz konnotazio txarrik izan behar, eta gerok ere, euskaldunok, askotan balio on gisa erabiltzen dugula, gure txikitasunaz harro. Txikiak gara

eta harro gaude. Baina txikitasun hori ongi azaldu eta zehaztu beharra dago, zertan garen txiki ongi azalduz. Alegia, beste hizkuntza batzuk baino hitzun gutxiago dauzkagu, eta hori ez da arazo guretzat; baina gure hizkuntza, eta munduko hizkuntza “txiki” guztiak, ez dira hizkuntza “handiak” baino sinpleagoak, edo pobreagoak edo balio gutxiagokoak.

Eta bestalde, zenbakiei begiratuta ere, txikitasun hori ere oso erlatiboa da. Jakina, gure ondoko hizkuntza “boretsekin” alderatuz gero, euskara txikia da: espainolak, frantsesak, ingelesak... hitzun asko dituzte, haien hitzunen milioitan zenbatzen dira. Baina munduko hizkuntza guztiak kontuan hartuz gero, gurea ez dago hitzun gutxiengatik dituzten hizkuntzen taldean.

MUNDUKO HIZKUNTZEN SAILKAPENA, HIZTUN KOPURUAREN ARABERA (AMA-HIZKUNTZA KONTUAN HARTUTA)

Hizkuntzaren hitzun kopurua	Hizkuntza kopurua		Hitzun kopurua, hizkuntza guztiak batuta	
	Kopurua	Ehunekoak	Kopurua	Ehunekoak
100 milioitik 1.000 milioira	8	0,1	2.308.548.848	38,73721
10 milioitik 100 milioira	77	1,1	2.346.900.757	39,38076
Milioi 1etik 10 milioira	304	4,4	951.916.458	15,97306
100.000tik milioi 1era	895	13,0	283.116.716	4,75067
10.000tik 100.000ra	1.824	26,4	60.780.797	1,01990
1.000tik 10.000ra	2.014	29,2	7.773.810	0,13044
100etik 1.000ra	1.038	15,0	461.250	0,007774
10etik 100era	339	4,9	12.560	0,00021
1etik 10era	133	1,9	521	0,00001
Ezezaguna	277	4,0		
Guztira	6.909	100	5,959,511.717	

(Iturria: <http://www.ethnologue.com>)

Euskarak 800.000 hiztun inguru dauzka. Munduan bizirik dauden 7.000 hizkuntzetatik % 80 inguruk 100.000 hiztun baino gutxiago ditu. Hau da, munduko hizkuntza gehienek gureak baino dezente hiztun gutxiago dituzte. Horrela begiraturaz gero, ez da gurea, bada, “hizkuntza txiki” horietakoa. Baina horrek, esan bezala, ez du gurea beste horiena baino hobea edo ederra-goia bihurtzen.

EUSKARA HIZKUNTZA ZAILA DA

Hori ere makina bat aldiz entzun dugu. Ez dugu guk esaneren hizkuntza bat ikastea oso gauza erraza denik, eta ahaleginik eskatzen ez duenik. Hizkuntzaren bat ikastea zer den probatu duenak badaki saiatu beharra dagoela. Eta euskararen kasuan ere hala da. Kontua da euskararen kasuan askotan esaten dela bereziki zaila dela, eta entzun izan dugu munduko hizkuntzarik zailenen artean dagoela ere.

Hizkuntzalariek badakite, ordea, berez ez dagoela hizkuntza zailagorik edo errazagorik. Hizkuntzen artean badira aldeak, eta batzuetan gramatikaren atal jakin batzuk sinpleagoak dira, eta beste batzuetan konplexuagoak. Baina hizkuntzen artean badago nola-baiteko oreka, eta konplexutasunean eta zailtasunean denak antzekoak edo berdintsuak dira.

Zergatik? Beharbada hizkuntzak gure burmuinarekin oso lotuta daudelako, eta haren ezaugarrien ondorioa direlako. Pertsonen artean eta herrien artean badaude aldeak, bistan da, baina munduko gizaki guztiok oso antzekoak gara, eta oso antzekoak dira gure burmuinak. Sor genitzakeen hizkuntza guztiek, beraz, antzekoak izan beharko lukete.

Bestalde, herri batek oso hizkuntza konplexua eratuko eta erabiliko balu, ikasteko edo eskuratzeko oso zaila dena, ziur asko ez lioke asko iraunen, beste hizkuntza batzuen ondoan ez litzatekeelako oso praktikoa izan eta, era-

ginkortasunak bultzatuta, alde batera utzi beharko lukeelako.

Azkenik, beste balizko azalpen bat ere eman dezakegu: munduko hizkuntza guztiak, beren oinarrian eta egiturari, berdinak dira. Ikusten, sumatzen eta gozatzen edo sufritzen dugun aniztasuna eta ezberdintasuna, azken batean, azaleko kontu bat besterik ez da.

Baina egia da, ezin ukatu, guri errazagoa egiten zaigula hizkuntza bat ikastea beste bat ikastea baino. Adibidez, errazago ikasiko genuke katalana nepalera baino. Hori ez da, ordea, katalana errazagoa delako nepalera baino. Indiako herritar batek ziur asko nepalera errazago ikasiko luke katalana baino. Errazago edo zailago bihurtzen duena abiapuntua da. Guretzat katalana erraz samarra izan liteke gaztelaniaz badakigulako eta hizkuntza horiek elkarren hurbilekoak eta antzekoak direlako. Indiakoarentzat, berriz, katalana oso arrotza izanen da, eta oso zaila gertatuko zaio.



Euskara da mendebaldeko Europa zaharretik iraun duen hizkuntza bakarra

Euskara, beraz, ez da berez beste hizkuntzak baino zailagoa, baina zaila egiten zaio gure inguruko erdaldunei beren abiapuntuko hizkuntzak, normalean gaztelania edo frantsesa, oso ezberdinak direlako.

Nolanahi ere, eta atal honekin bukatzeko: euskara ikasteak ahalegina eskatzen duela bistakoa izan arren, garbi dago behar adinako motibazioarekin eta gogoarekin ikas daitekeela, ongi

gainera, gure inguruan ditugun euskaldun berri askok ederki asko erakutsi ditugun moduan.

EUSKARA HIZKUNTZA ZAHARRA DA

Oso topiko zabaldua da, eta, itxuraz behintzat, oso gure gustukoa. Eta txikitetasunaren kasuan bezala, hori ere zehaztu eta argitu behar da.

Hasteko, esan beharko genuke ez dagoela hizkuntza zaharragorik edo berriagorik. Munduko edozein hizkuntza hartuta, eta bere bilakaeran atzera eginez gero, hizkuntzak sortu ziren unera iritsiko ginateteke. Ez dugu aurkituko historiaren edo historiaurrearen une jakin batean artifiziarki sortutako hizkuntza naturalik. Hartu euskara, edo gaztelania, edo kitxuera, edo arabiera... atzera joan, eta hizkuntzaren edo hizkuntzen sorrera momentura iritsiko gara kasu guztietan. Ezagutzen edo kontrolatzen ez dugun une batera, betiere.

Hizkuntzei izena aldatu zaie, eta orain gaztelania dena lehen latina zen, eta aurrerago indoeuroparra-edo, baina ez dago hausturarik, dena kate bat da, denboran atzera etenik gabe jarraitzen duena. Eta hori hala da munduko hizkuntza natural guztietan.

Munduko hizkuntza guztiak, beraz, zentzu horretan behintzat, zaharrak dira. Ezin esan, horrela ikusita, bat bestea baino zaharragoa denik, noizkoak diren ere ez dakigu-eta!

Beste kontu bat da, eta ezberdina da, hizkuntza batek toki jakin batean duen antzinatasuna. Alegia, noiztik dagoen hizkuntza bat toki jakin batean kokatuta. Eta horretan badaude aldeak. Esate baterako, euskara gaztelania baino askoz lehenagotik dago Europako txoko honetan kokatuta, bizirik. Hori bada-kigu, eta gauza ziurra da. Euskara, beraz, hemen, Euskal Herrian zehazki, gaztelania baino zaharragoa da, eta baita Europako mendebaldean dauden beste gainerako hizkuntza guztiak baino zaharragoa ere.

Baina beste hizkuntza horiek, aspaldiko garai haietan ere existitzen ziren: beste forma batekin eta beste toki batean, baina izan baziren. Ezinen diegu hori ukatu!

Hori guztia esanda, ez diogu baliorik kenduko euskarak bertan duen antzinatasunari, eta horrek ematen dion berezitasunari. Garai bateko Europa zaharraren aztarna bat da, linguistikoki bakarra eta berezia agian, eta horrek besteak baino hobea bihurtzen ez badu ere, gauza interesgarria eta baloratzekoa badela esan genezake.

EUSKARA HIZKUNTZA BEREZIA DA

Euskara berezia baldin bada, aurreko puntuan aipatu dugun horregatik izanen da akaso. Testuinguru jakin batean, Europako mendebaldean, hizkuntzen mapa zaharretik irau duen bakarra da, eta hizkuntzari eusteko grinaren, erabakiaren, edo dena delakoaren erakusgarri berezia da, agian ez oso ohikoa. Egonen dira egoera hori azalduko duten arrazoiak eta faktoreak, baina egia da gutxienez deigarria dela.

Baina askotan euskararen berezitasuna euskararen barruko ezaugarri lotu diogu. Gure ondo-ondoko hizkuntzen aldean nahikoa desberdina denez gramatika eta beste zenbait ezaugarritan, oso hizkuntza berezia dela tentsatzea erraza da.

Gure inguruko hizkuntzak, gaztelania, frantsesa, katalana, galiziera... erromaniakoak dira, familia bereko senide hurbilak denak, eta elkarren artean antzekoak, antzeko ezaugarriak dituztenak. Eta gurea, horien ondoan, desberdina.

Baina munduan hizkuntza asko dago, eta gure euskarak dituen ezaugarri berezi horiek han edo hemen ere aurki ditzakegu. Bereziak gara hemen, Europako txoko honetan, baina ez hainbeste mundu osoko hizkuntza aniztasuna kontuan hartzen baldin badugu.

Adibide bat: gure ondokoei berezia irudituko zaie agian gure esaldien sub-



jektuetan NI eta NIK bereiztea. *NI etorri naiz*, eta *NIK esan dut*. Gaztelaniaz *YO he venido* eta *YO he dicho* esaten dute, bi kasuetan berdin. Guk ez. Hizkuntza ergatiboa da gurea, ondo-koak ez bezala.

Baina berezitasuna ematen duen ezaugarri hori gertaera arrunta da munduan barna, eta asko dira hizkuntza ergatiboak. Ez denak modu berean, baina hizkuntza ergatibo asko dago.

Eta berdin euskararen beste ezaugarri batzuekin. Bereziak dira gure testuinguru geografikoan, baina ez hainbeste mundu osoko hizkuntzak kontuan hartuz gero.

EUSKARA HIZKUNTZA GARBIA DA

Hori ere nahikoa barneratua daukagu. Agian gaur egun gure birao edo juramentu gehienak, gazteek batez ere, gaztelanatik hartzen ditugulako.

Ez da, hala ere, topiko berria, aspalditik esaten baita euskarak ez duela biraorik eta hitz zikinik. Ziur asko hori esaten duenak ez zuen ikusi nahiko inguruan zer zuen, edo nolabaiteko puritanismoak bultzatuta esanen zuen.

Euskarak baditu, jakina, beste hizkuntzen morrontzarik gabe jendea iraintzeko, biraoak botatzeko edo gauzak

zakar adierazteko baliabideak. Propioak, bere baitatik sortuak, edo baita inguruko erdaretatik hartuak eta geurera moldatuak ere. Itxura, forma eta esanahi gordineko hitzak, esamoldeak eta esaldiak ere erabili ditu euskaldunak bere hizkuntzan, gainerako hizkuntzetako hitzunek beren hizkuntzetan egin duten bezalaxe.

Gaur egun askoz errazago eta maizago erabiltzen ditugu erdaratik zuzen zuzenean hartu eta egokitu gabekoak, esate baterako, baina hori ez da beti horrela izan.

Eta horren lekuko da, berta-bertakoa gainera, Bittorio Lizarragak Leitzako hitz, forma eta esamoldeekin osatutako lana, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian argitaratua: Leitzako hizkera adierazkorra: biraoak. *Fontes Linguae Vasconum*. 103. 2006. Interneten ere aurkiko duzue, izenburu horrekin.

Honaino, bada, maiz entzuten ditugun topiko horien gaineko gure iritzia. Espero dugu horrekin inor ez zapuztea. Gogoan izan gurea ere, gainerakoena bezala, iritzi bat dela, eztabaidatu eta zalantzan jar daitekeena. Nolanahi ere, arrazoi edo argudio batzuk planteatu dira hemen, eta zure esku gelditzen da orain horiek baloratzeko eta zeure iritzi propioa finkatzeko.

Kaxkabeltza

elkar tea

«Leitzako merkataritza
ezinbestekoa da herria
bizirik mantentzeko»



Herria bizirik mantentzea, zalan-tzarik gabe, denon kezka eta ardura da. Gauza asko egin daiteke eta egiten da horretarako, alderdi eta toki askotatik. Egin daitekeen horietako bat, adibidez, herriko merkataritza eta herriko establezimenduak bultzatzea da. Horik ere, izan ere, ematen baitio- te bizia herriari.

Leitzan badugu esparru horretan lanean ari den elkarte bat, eta haiengan- a jo dugu haien helburua zein den jakiteko eta egiten dutenaren berri izateko. Elkarrizketa honetan ikus ditza- kezue Kaxkabeltza Elkartekoek eman dizkiguten argibideak.

Bertako komertzioek herria bizirik mantentzen lagundu dezakete



■ Noiz sortu zen Kaxkabeltza el- karteak?

2008an elkartzen hasi baldin baginen ere, estatutuak 2009ko azaroan egin genituen.

■ Nork osatzen du? Zer eratako establezimenduak daude elkartearen barruan?

Herriko 41 denda, tailer, eta ostala- rik osatzen dugu kaxkabeltza elkarteak. Oso jarduera ezberdinekoak gara denak:

- Adur Taberna
- Ainart ileapaindegia
- Amaya arrandegia
- Ane E. Fisioetxea
- Ariztela Dekorazio tailerra
- Astiz liburu-denda
- Arzallus harategia
- Belarra belar-denda
- Biok jantziak
- Bitxilore lore-denda
- Bixigarri fruta-denda
- Edr gunea estetizista
- Elkarlan Allianz aseguruak
- Etxe-Tresnak elektrogailuak
- Garbi drogeria
- Gaztetxo goxoki-denda
- Guria tailerra
- Hernandorena Ferreteria
- Imelda Larraz estankoa
- Iruso jatetxea
- Kapritxo jantzi-denda
- Kiroldegia
- Larraya Farmazia
- Leitz Garajea
- Maimur liburu-denda
- M. Plaza-E.Arrupea farmazia
- Musunzar jatetxea
- Marcia Z.Campos farmazia
- Ogi berri okindegia
- Oihana Erbiti farmazia
- Olaia bazarra
- Peritza taberna
- Perurena harategia
- Sagasti jatetxea
- Seikide asesoria
- Torrea herriko taberna

- Txiki- Txoko jantzi denda
- Urkiola harategia
- Ze-Goxo fruta-denda
- Zortziko Labetxea okindegia
- Zurlan Zurgindegia

■ Elkartean denda edo establezi- mendu gehiago sartzeko aukera ba al da?

Bai, inongo eragozpenik gabe gai- nera, oso pozik hartzen ditugu kide berriak.

■ Zein da elkartearen helburua?

Gure arazo, kezka eta esperientziak konpartitzea. Denda, taberna, jatetxe, ostatu eta tailerrek gure herriari ematen dioten biziak irautea, gure lanpostuak mantentzea eta bezeroei ematen diegun zerbitzua egunetik egunera hobetzea, konfiantzako eta hurbileko harrera eskainiz.

■ Leitzan erosteko ohiturari buruzko daturik ba al duzue? Zein da gaur egungo errealitatea?

Datu ofizialik ez badugu ere, Iruña, Donostia eta Tolosara joateko joera badagoela jakina da eta gainera azken urte hauetan merkataritza guneetara joateko ohitura gero eta handiagoa dela ere denok badakigu. Baina hurbileko eta konfiantzako harrera, herrian bertan erosteak duen erosotasuna (autoa hartu beharrik ez), eta Leitzan dagoen komer- tzio ugartasuna dela eta pixkanaka aldatzen joanen den esperantza osoa dugu.

■ Zergatik da garrantzitsua Lei- tzako merkataritza bultzatzea?

Gure herria bizirik mantentzeko ezin- bestekoak garela uste dugu. Elkartean gaudenen artean 100 lanpostu inguru daude eta gainera herriko kultur eta kirol jardueretan laguntza ekonomikoa ere ematen dugu. Baina lanpostu hauek mantentzeko bezeroak behar ditugu, konfiantzako zerbitzua, hurbiltasuna,



Kaxkabeltzak herriko kirol jarduerak laguntzen ditu

eta herri bizi bat baloratzen duten bezeroak. Eta denen artean daukaguna zaindu eta aurrera begira negozio berriak irekitzeko bermea eman behar dugulako, lanpostuak eta zerbitzuak gehitzeko.

■ Zein da egiten duzuen lana?

Batetik, Leitzako merkatari, ostalari eta zerbitzu tailerrek arlo ezberdinetan lan egiten badugu ere, kezka eta zalantza berak edo antzekoak ditugu: besteak beste ematen dugun zerbitzua-ren kalitatea eta gure formakuntza hobetzea; gauza denak hitz egin eta zehazten saiatzen gara. Beste aldetik, gure bezeroen fideltasuna eskertzeko eta bezero berriak erakartzeko zozketa eta promozio bereziak ere egiten ditugu. Eta azkenik, erosketa bertan egiteko eta komertzio txikiak bizirik man-

tentzeko kontzientziazio kanpainak burutzea ere bada gure asmoa.

■ Ba al duzue inongo laguntzarik instituzioetatik edo beste nonbaitetik?

2008an Leitzako Udalak eta Cederna Garalurrek Leitzako dendari, ostalari eta zerbitzu tailerretako kideak bilera batera deitu gintuzten eta elkarte sortzeko ideia eta laguntza eskaini ziguten, eta bultzada honekin sortu genuen elkarte. Bestalde, aurren Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak atera ditu Elkar-teak bultzatzeko, eta eskatu badugu ere ikusi egin behar onartzen diguten.

■ Antzeko elkarteekin harremanik ba al duzue?

Sortzeko lanetan ari ginela, Doneztebe eta Berako merkatari elkarteekin

izan genuen harremana. Leitzara etorri ziren beraien esperientziak azaltzera.

■ Nola aukeratu zenuten elkar-tearen logoa?

Lehiaketa baten bidez aukeratu genuen, guk izena eta izana kontuan izatea eskatu genuen, besterik ez; oso parte-hartze polita izan zen. Leitzako Ireber Arangoak irabazi zuen.

Irabazleak buruz-buruko pilota finalerako bi sarrera lortu zituen eta parte-hartzaile guztien artean berriz MP4bat zozketatu genuen.

■ Zein dira aurrera begirako zuen asmoak?

Taldea bezala indartu eta osatzea, eta taldekideen eta oro har herritarren behar eta kezkek asetzen dituen elkarte sendo bat izatea.

Hileta zibilak

Bizitzeko era, estilo eta bide ezberdin ugari dago, bistan denez, eta norberak hautatzen du nola bizi nahi duen, ahal den neurrian behintzat. Bada, agian bakarren bati xelebrea irudituko zaion arren, hil ondorenerako ere erabakiren bat har dezakegu. Zein? Adibidez, nolako hileta eginen diguten.

Tradizio eta usadio zorrotza izan da gurean hildakoari hileta erlijiosoa egitea, normalean meza baten bitartez, eta erlijio katolikoaren baitan. Baita fededun ez direnen kasuan ere. Baina horretan ere gizartea aldatzen ari da, eta gero eta gehiago dira erlijiozkoa ez den hileta egitea erabakitzen dutenak.

Hileta erlijiosoa egin behar duenak izaten du horretarako toki aproposa, erlijio horri dagokion tenpluan edo egoitzan. Hemen, normalean, eliza. Bestelako hileta egin nahi duenak, berriz, tokia bilatu beharko du. Errealitate horretaz jabetuta, eta beharra gero eta handiago dela ikusita, herri askotako udalek behar horri erantzun bat eman nahi izan diote, eta herritarrei leku bat eskaini. Baita Leitzan ere.

2010. urtean Leitzako udalak ordenantza bat onartu zuen: “Leitzan hileta

zibilak baimentzeko eta egiteko ordenantza” hain zuzen ere, eta horren bitartez arautzen da gai hori. Ez dugu ordenantza osoa hona ekarriko, baina bai “atarikoa” izeneko atala, hitzez hitz. Honelaxe dio:

Administrazio Publikoek, entitate demokratikoak diren neurrian, erlijioarekiko jokabide neutrala bermatu behar dute, eta beren egintza guztietan herritar guztien askatasun ideologikoa, erlijiosoa eta gurtzari dagokiona ziurtatu.

Era berean, gizarte ororen funtsezko eta berezko ezaugarria da aniztasun ideologikoa eta erlijiosoa; ohitura eta ekintza sozialean etengabe aldatzen ari den aniztasuna, hain zuzen ere.

Erlijiorik gabe bizitzea hautatu zuten herritarrei zeremonia duin eta pertsonala eskaini beharrak eraginda sortu dira hileta zibilak, hildako horiek bizitza ulertzen zuten moduarekin bat etorritz.

Gure gizartean dauden erlijioek ekitaldi liturgikoetan beren hildakoak agurtzeko beren tokiak eta tenpluak dituzten bezala, Leitzako Udalaren nahia da herritarrek gero eta gehiago eskatzen duten behar sozial bati erantzutea, hileta zibil hauek udal egoitzetan behar bezala egiteko azpiegitura eskainiz.

Beraz, ordenantza honen xedea honakoa da: gure herriko gizarte zibila osatzen duten familiarteko, lagun eta hainbat erakunde eta entitatek beren hildakoei lokal publikoetan agurra edo omenaldia egiteko baimena arautzea.

Ordenantzak zenbait kontu arautu eta zehazten ditu. Horietako batzuk aipatuko ditugu, laburtuta:

- Ordenantzak hileta zibiletarako egoitzen erabilera arautzen du.
- Soilik Leitzan erroldatutakoei eta haien senide hurbilenei aplikatuko zaie.
- Alkateak edo haren ordezkari zinegotziak eman dezake toki horiek erabiltzeko baimena.
- Eskatera formal bat egin beharko da.
- Alkateak edo zinegotzi nahiz funtzionario eskuordeak erabakiko du zein izanen den Udalak uzten duen egoitza. Normalean udaletxeko osoko bilkurako aretoa izanen da, baina aparteko egoeretan beste egoitza batzuk erabiltzeko baimena eman ahalko da.
- Ordutegi jakin bat ezartzen da, astelehenetik igandera.
- Ospakizunak ez du ordubete baino gehiago iraunen.
- Udalaren adostasunarekin baldin bada, familiartekoek edo lagunek egoitza apaintzea erabaki dezakete.
- Ezin da gorpua bertan dela ospakizunik egin, baina errautsen kutxatilik bertara ekartzea baimenduta egonen da.
- Zerbitzua erabiltzeko ordaindu beharreko tasak: udalean erroldatutakoek 50 euro, eta udalean erroldatuta ez daudenek 100 euro.



Hileta zibilak udaletxean egin daitezke.

Animaliak

kontu-kontari?

Animaliek ba ote dute hizkuntzarik? Elkarrekin komunikatzen al dira? Zer esaten ote dio, esate baterako, bale batek beste bati? Txakur batek kontatu al diezaioke beste bati jan berri duen haragi puska zenbat gustatu zaion?

Beharbada antzeko galderak egin izan dizkiozu zeure buruari. Denok dauzkagu animaliak inguruan, hurbi-lago edo urrunago. Baserriko aziendak ez badira, txakurrak, katuak, erleak, amuarrainak... Eta denok ikusi izan dugu inoiz telebistako dokumentalen bat, animalien ohiturak eta jokabideak erakusten dizkiguna. Elkarrekin komunikatzen direla nahikoa bistakoa dirudi, baina komunikazio hori zer den eta nolakoa den ez dago hain garbi.

Animaliek lengoaiarik ba ote duten jakiteko, nolana ere, agian komeni da alde zuretik zenbait galderari erantzutea. Adibidez:

- Animaliek pentsatzen al dute?
- Animaliek pentsatzen dutena elkarri komunika diezaioke?
- Elkarrekin komunikatzeko erabiltzen duten hori, lengoia al da?
- Lengoia hori, gurearen antzekoa al da?

Saia gaitezen galdera horien inguruko ideia batzuk biltzen.

PENTSATZEN AL DUTE?

Animalien inguruan, esan beharrik ez dago, asko ikertu da. Asko eta aspalditik gainera. Garai batean behaketa hutsaz baliatzen ziren ikertzaileak, baina azken aldi honetan esperimentu asko egin da animaliekin. Badakigu,



beraz, memoria badutela, kontzeptu batzuk erabili eta uler ditzaketela, helburuak badituztela, erremintak erabili ditzaketela... Egiten diren esperimentuetan, adibidez, janaria ezkututzen zaie, eta gauza izan behar dute hura bilatzeko; edota jana lortzeko tresna bat erabili behar izaten dute; edo kontzeptuak sailkatu (fitxen bitartez...). Zientzialariek garbi dute, beraz, animaliek "pentsamendua" deitu litekeen zerbait badutela, kognizioa badutela. Pentsamendu horrek, jakina, ez du gurea bezalakoa, berdin-berdina, izan beharrik.

PENTSATZEN DUTENA ELKARRI KOMUNIKA DIEZAIOKETE?

Elkarri informazioa transmititzeko bide asko dituzte animaliek. Hona horietako batzuk:

- Zelulabakarreko ameba batek substantzia kimikoak kanporatzen ditu eta

horren bitartez beste ameba bat erakartzen du, eta ugaltu egiten dira.

- Txori kantari arrak, bikotea erakartzeko eta lurraldea defendatzeko, kantatu egiten du.
- Txakurrek pixa egiten dute lurraldea markatzeko.
- Txinpantzeek, fruitu onduz betetako zuhaitz bat aurkitu ondoren, garrasi luze eta ozena egiten dute gainerakoei deitzeko.

Horiek denak, zalantzarik gabe, komunikazio-sistemak dira. Animalia batek beste bati nolabaiteko informazioa pasa dio, agian erabilgarria izanen dena. Beste kontu bat da hori kontzienteki egin duen edo ez. Eta beste gauza bat da, biziraupenerako informazioaz gain, animaliek ba ote duten beste deus esateko: txakurrak, adibidez, pozik edo triste egon litezke. Hori esateko edo



transmititzeko gogorik sentitzen ote dute, guk sentitzen dugun moduan?

ELKARRI KOMUNIKATZEKO DUTEN SISTEMA HORI, LENGOAIA AL DA? ETA GUREAREN ANTZEKO AL DA?


Nolanahi ere, horiek denak komunikazio sistemak izan arren, ezin ditugu lengoaiatzat hartu. Lengoaia zer den definitu beharko genuke kontu hori argitzeko, jakina, baina normalean, erreferentzia gisa gure mintzaira hartzen da. Ez da agian zuzenegia, baina horrela egin ohi da. Eta ondorioa da animalien hizkuntzak ez dituela gurearen ezaugarriak, ez denak behintzat. Eta, bereziki, oso garrantzitsuak diren zenbait. Adibidez:

- Animaliena, hasteko, finitua da, errepertorio mugatu bat dute. Haien deiak, beraz, asmo jakin batzuetara mugatuta egon ohi dira (alarma, lurraldea markatzea, gorteiatzea...). Gure hizkuntzak ez dauka mugarik mezuren funtzioei edo asmoei dagokionez. Gainerako animaliek ebolutiboki garrantzitsuak diren gauzak komunka ditzakete. Guk, edozein gauza.
- Animaliena analogikoa da, seinale jarrai bat baliatzen baitute elkarrekin komunikatzeko, tamainaz edo intentsitatez aldatzen dena (erlearen dantza zenbat eta bizkorragoa, orduan eta handiagoa da seinalatzen ari den elikagaiaren kantitatea). Gurea digitala da: dauzkagun elementu diskretu horiek ordena eta konbinazio jakinetan berrantolatzen dira. Ulertzeko, alfabetoan pentsatu: letra gutxi batzuk konbinatuz, zenbat hitz eta esaldi sor ditzakegun!
- Hizkuntzaren erabilerak, gure kasuan, ez dio kanpoko estimuluei erantzuten, ez da haien mendekoa. Eraginen dute, ziur asko, baina estimulua kontuan hartu gabe ere erabaki dezake hiztunak zer esan, edota deus esan behar ote duen. Gure inguru hurbilarekin edota gure inguruko estimuluekin



inolako zerikusirik ez duen edozein gauza esan dezakegu guk, inoiz esan den tontakeriarik handiena bada ere. Animalien kasuan, berriz, komunikazioak inguruko estimuluei erantzuten die.

- Produktibitatea: gure hizkuntzaren ezaugarriek esker, osagai kopuru mugatu batekin, nahi adina, infinitu adierazpen edo esaldi sor ditzakegu; ez sortu bakarrik, ulertu ere egin ditzakegu, esandako horrek aplikazio praktikorik ez badu ere. Aipatu izan da, nolanahi ere, animalien artean ere nolabaiteko adierazpen-sormena erakusten duten adibideak badaudela, txinpantzeekin egindako esperimentuetan ikusi denez. Roger Foutsen *Primos Hermanos* liburuan dioenez, dirudienez bere txinpantzeetako batek, bere kabuz, hozkailua izendatzeko zeinu bat asmatu zuen, “ireki”, “jana” eta “edaria” nozioetarako zekizkien zeinuak erabiliz. Hozkailu esateko “kaxa” eta “hotza” zeinuak erakutsi omen zizkioten, baina berak aipatutako beste horiek erabili zituen. Hitza “sortu” egin zuen, itxuraz behintzat. Eta abar.



Hozkailua. Roger Foutsen txinpantzearentzat: ireki + jana + edaria

JATORRI BERA AL DUTE GURE SISTEMAK ETA ANIMALIENAK?

Eztabaida handia dago horren inguruan. Zenbaiten ustez, gure lengoaiaren aurrekaria beste animalien komunikazio



Izurdeen komunikazio sistema oso aipatua izan da.

sistemetan bilatu behar da. Alegia, gurea, gainerako animalien sistemen bertsio aurreratuagoa izan liteke, eboluzionatuagoa.

Beste batzuen ustez, berriz, ez daukate zerikusirik, eta gurea benetako jauzia eta emergentzia izanen litzateke, guztiz oso bestelako gauza.

Beste jarrera bat, azkenik, bi horien arteko nolabaiteko zubia eraikitzen saiatzen dena da, eta planteatzen du gure lengoaiaren osagai gehienak animaliekin konpartitzen ditugula, baina gure mintzaira osagai horien konbinazio eta emaitza partikularra eta oso berezia dela.

MUNDU HARRIGARRIA

Lengoaia izan edo ez, argi dago animalien komunikazioa oso gai interesgarria dela, eta asko dagoela horren inguruan ikertzeko. Azkeneko hamarkadetan ikerketa ugari egin da, eta ziur asko datozen urteotan gero eta gehiago jakinen dugu horretaz.

Animalia asko aztertu bada ere, agian komunikazio-sistematik sofistikatuena edo harrigarriena, edo gutxienez oso aipatuak, izurdeena, baleena, erleena, txori kantariena eta tximuena dira.

Vervet izeneko tximuen kasua oso ezaguna da. Dirudienaz, badituzte zenbait dei espezifiko, identifikatu izan



Verbet tximua

direnak. Bat lehoinabarra adierazteko, beste bat arranoa adierazteko, eta beste bat sugea adierazteko. Grabatu dira, eta identifikatu. Eta nola dakigu bakoitzak zer esan nahi duen, eta hori esan nahi duela? Bada, dei bakoitzaren aurrean tximuek duten erreakzioari esker. Lehoinabar-deia entzunez gero, korrika batean zuhaitzean gora joaten dira. Arranoarena entzunez gero, berriz, sasi artean gordetzen dira. Eta sugearena entzunez gero, bi hankatan jarri eta lurrera begiratzen dute.

Beste komunikazio sistema ezagun bat erleena da. Oso sofistikatuena da. Erle esploratzailea, jana aurkitzen duenean, besteengana itzultzen da horren berri ematera. Bere dantzaren bitartez, abiaduraren eta dantzaren norabidearen bitartez, jatekoa zer distantzian eta zer norabidean dagoen adieraz diezaike gainerakoei.



Txoriek ere asko kantatzen dute, gutako edozeinek dakien bezala. Esaten denez, txorien kantuen bitartez zenbait gauza adierazten da. Normalean kantuen bidez txori bakoitzaren lurraldea markatzen dute, edo arrak nahiz emeak erakarri eta gorteiatzean dituzte. Normalean emeek kantatzen dute, baina hainbat espezieetan biek egiten dute, alternantzian (*duetin* esaten zaio).

Baina soinuak ez diren bideak ere erabiltzen dituzte animaliek elkarri informazioa emateko. Usaina, esate baterako, nonbait usainen bat utzita (gorotzetan edo gernuan).

Beste era harrigarri bat elektrokomunikazioa da. Izenak dioen bezala, seinale elektrikoaren bidezko komunikazioa da. Uretan bizi direnek erabiltzen dute batez ere, nahiz eta ugaztun batzuek, ornitorrinkoek adibidez, elektrorrezpiziorakoa gaitasuna duten eta, beraz, baita elaktrokomunikaziorako gaitasuna ere.

ONDORIOA

Ez dago zalantzarik, horrenbestez, animaliak elkarrekin komunikatzen direla, eta guri arraro, xeble edo harrigarri iruditzen zaizkigun sistemak erabiltzen dituztela horretarako.

Eta ez dago zalantzarik, bestalde, gure lengoaiaren edo mintzairaren parekorik ez dagoela animalien munduan. Oraindik ez da argitu gure hizkuntzaren jatorria non aurkituko dugun, eta norainoko lotura duen gureak gainerako animalien sistemekin, baina garbi dago, animalien munduaren baitan, eboluzioak harribitxi eta tresna benetan ederra eta praktikoa eman digula gizakioi.

Euskara zerbitzuaren logotipoa

Marketina eta irudia hain garrantzitsu bihurtu diren garai honetan, eskualdeko euskara zerbitzua ere saiatu da, neurri batean behintzat, garai berrietara egokitzen.

Eta horretarako, besteak beste, euskara zerbitzuaren logotipoa sortu genuen. Komunikazioetan, gutunetan, karteletan, idatzietan... erabiltzen dugun logoa da, herritarrek erraz identifika dezaten. Honezkerok han edo hemen ikusi izan duzu, nahiz eta, gaur egun dugun logo eta irudi saltsarekin, agian ez zaren ohartu.

Logoa sortu dugu, bai, baina sorkuntza horrek ere badu bere mamia. Kulturkari fundazioari eman zitzaion enkargua, eta hauxe izan zen lana: Euskara Mankomunitatea osatzen duten hiru euskara zerbitzuetarako logo bana sortzea. Izan ere, Mankomunitatea bat bakarra da, baina zerbitzuak hiru. Argibide bat edo beste emateko baliatuko dugu aukera:

Hiru zerbitzu horiek eskualde bana hartzen dute beren baitan, honela banatuta:

- Arano, Areso, Goizueta eta Leitza.
- Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberri.
- Anue, Basaburua, Imotz, Odieta eta Ultzama.

Hiru zerbitzu dira, beraz: hiru eskualde, 11 udalerrri, eta 73 herri,

guztira. Izan ere, gure inguruko lau herriek (Arano, Areso, Goizueta eta Leitza) udal bana duten arren, ez da gauza bera gertatzen gainerako eskualdeetan. Mankomunitateko udalerrietako askok hainbat herri biltzen dituzte beren baitan: Araitz (6 herri), Larraun (15), Anue (7), Basaburua (9), Imotz (8), Odieta (8) eta Ultzama (14).

Eskualdetzat hartu ditugun hiru horiek, nolahi ere, ez dira historikoki osatutako eta "naturalizat" jotzen ditugun eskualdeak. Gure lauek, esate baterako –Areso, Arano, Goizueta eta

logotipoa

Leitza–elkarren artean nahikoa harreman estua izan dutela esan dezakegun arren, ez dute Ultzama edo Basaburua bezalako eskualdea osatzen.

Horiek horrela izan arren, euskara zerbitzua hiru eskualde horien arabera antolatuta dago, eta logotipoak ere antolaketa eta egitura horri erantzun behar zion. Horrela azaldu zitzaion Kulturkariri, eta handik egin ziguten

planteamendua ontzat jotzen Mankomunitateak. Eskema bera hiru zerbitzuentzat: gure logotipoa "globo" edo "puxika" batzuekin osatutako irudia da, eta globo horietako bakoitzak eskualdea osatzen duen udalerrietako bat irudikatzen du. Gure kasuan, lau udalerrri ditugunez, lau globoz osatutako logoa dugu: Areso, Arano, Goizueta eta Leitza.

Gainerako bi eskualdetakoak antzekoak dira. Kasu batean globo kopurua 5ekoa da, udalerrriak ere 5 direlako. Eta, bestalde, eskualde bakoitzak bere kolore propioak ditu.

Logotipoa ez da, inondik ere, erakunde baten alderdirik garrantzitsuena, baina bere lanaren zabalkunderako eta harremanetarako lagungarria izan liteke, eta helburu horrekin sortu da eskualdeko euskara zerbitzua.



zer diozu?

eta zuk,

Edurne Gomez



- **Zerk jartzen zaitu urduri?** Zerk enao jartzen urduri? Lasaitzen ikasiten arren, oso urdurie naiz eta belaxe jartzen naiz urduri.
- **Eta zerk lasaitzen zaitu?** Urduri jartzen ditean gauzek bukatzen dienen edo nere ingurue ongi daola ikusten dotenen.
- **Zerk hasarrarazten?** Injustizik, diskriminazioak, harrokerik... Laburtuz, miñe itten duen egoerak.
- **Eta barre eginarazten?** Eztot asko behar parra itteko, parra errexakoa naizela esango nuke. Egie bada par asko in da bizie luzatzen den esaera, urte asko biziko naizela uste dot.
- **Ametsak ongi gogoratzen dituzun horietako al zara?** Batzutan bai, baño gustokoak ez badie belaxe ahazten saiatzen naiz. Ta amets onak gogoratu nahi izaten dított beño gutxitan lortzet.
- **Eta esna zaudela ere amets asko egiten duen horietakoa?** Egie esan enaiz amets asko itten dítton hoitakoa beño eztittot esango zein dien ze bestela eztie beteko, jeje.
- **Eta orain hitz egin dezagun gure herriaz.** Pentsatu al duzu inoiz, edo amestu, Leitza nolakoa izanen den 20 urte barru? Zalle da imajinatzea ta oain dela 20 urte herrie nolakoa zen ikusita (argazkitatik, ttikie baintzen) ta oain daon bezela ikusita eztot imajinatu re in nahi nolakoa izanen den. Beño eztot dudik itten oain bezain politte izanen dela.
- **Eta nolako Leitza nahiko zenuke zuk?** Umek eta gaztek behar añeko hezkuntza, jolastoki eta elkargune eukitzea; gaztek lana eta etxe bat izateko aukera gehio eukitzea eta kuartela desgertzea.
- **Horrelakoa izateko itxaropenik?** Bai, noski.
- **Gaurko Leitzara etorrita.** Zure herria deskribatzeko hitz bat (edo bi, behar izanez gero): Berezie ta bakarra.
- **Gustura al zaude gaur egun dugun herriarekin?** Kuartela kenduta bai.
- **Horretarako boterea duzula pentsa ezazu:** dituen bi gauza kendu Leitzari, eta ez dituen beste bi jarri. Jarri aterpedun parke bat eta langabetuntzako laguntza gehio eta karreteran apartatzeko ohitture ta kuartela kendu.

Arantxa Arraras



- **Zerk jartzen zaitu urduri?** Buf! Gauza askok baina gehien-gehien momentu berdinean lan bat baino gehiago egin behar izatea eta ezin dudanean.
- **Eta zerk lasaitzen zaitu?** Nere zakurrarekin mendira joatea eta han etzanda egotea paisaiari begira; baita ere sukaldean aritzeak, nire afizio handienetakoa da, eta zer esanik ez parranda on batek.
- **Eta barre eginarazten?** Nahiko zaila da neri barre eginaraztea; batez ere umek lortzen dute eta parrandako txorakeriek ere bai.
- **Ametsak ongi gogoratzen dituzun horietako al zara?** Ez. Oso gutxitan gelditzen zaizkit, eta amorrazioa ematen dit nik sekula ezin ditudala kontatu.
- **Eta esna zaudela ere amets asko egiten duen horietakoa?** Bai, bizitza honetan nik uste ilusiotik ere asko bizitzen dela.
- **Eta orain hitz egin dezagun gure herriaz.** Pentsatu al duzu inoiz, edo amestu, Leitza nolakoa izanen den 20 urte barru? Amestu ez dut inoiz egin, baina gustatuko litzaidake oraingoaren antzekoa izatea.
- **Eta nolako Leitza nahiko zenuke zuk?** Herri giroa asko gustatzen zait, denok elkar ezagutzen dugu eta hori berezia da; ez litzaidake gustatuko hiri bateko giro arrotza.
- **Horrelakoa izateko itxaropenik?** Nik uste baietz.
- **Gaurko Leitzara etorrita.** Zure herria deskribatzeko hitz bat (edo bi, behar izanez gero): Lasaia.
- **Gustura al zaude gaur egun dugun herriarekin?** Bai, zer edo zer aldatuko nuke baina...
- **Horretarako boterea duzula pentsa ezazu:** dituen bi gauza kendu Leitzari, eta ez dituen beste bi jarri. Kenduko nituzkeenak: Kuartela, eta gure soldatatik bizi diren bat edo beste. Jarriko nituzkeenak: Kotxeentzako aparkaleku gehiago, eta herrian lanpostu gehiago herritarrentzat.